

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

**149/2025 Foru Agindua, martxoaren 12koa. Onespena ematea Kuartangoko udalerriko hiri antolamenduko plan orokorraren testu bateginean atzemandako akatsak zuzentzeari, "Egiturazko antolamendua. Lurzoru urbanizaezinaren sailkapena, kalifikazio orokorra eta baldintzatzaile gainjarriak" atalari dagozkion NOR 1 serieko planoetan**

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren maiatzaren 3ko 107/2021 Foru Aginduaren bidez, behin betiko onetsi zen Kuartangoko hiri antolamenduko plan orokorraren espedientea, ebazpen horren oinarrietan adierazitako baldintzen pean, eta adierazi zen aipatutako baldintzak ez zirela funtsezkoak, eta, beraz, haiek zuzendutakoan espedientea foru aldundiari igorriko zitzaiola, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa zela adieraz zezan, izapideak egin zitezzen eta argitara eman zedin.

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren urriaren 30eko 137/2023 Foru Aginduaren bidez, maiatzaren 3ko 107/2021 Foru Aginduan ezarritako baldintzak betetzat jo ziren, eta Kuartangoko hiri antolamenduko plan orokorraren testu bategina Arabako Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistroan erregistratu zen (erregistro zenbakia: 2023/23, azaroaren 6koa), eta ebazpen hori ALHAOn argitaratu zen, hirigintza araudiarekin batera, 2024ko urtarrilaren 17an (7. zenbakia).

Arabako Foru Aldundiko erregistro orokorrean 2025eko otsailaren 27an sartu zen idazkiaren bidez, Kuartangoko Udalak 2024ko abenduaren 9ko ohiko bilkuran udalbatzak hartutako erabaki bati buruzko ziurtagiria bidali zuen. Erabaki horren bidez, onetsi zen Kuartangoko udalerriko hiri antolamenduko plan orokorraren testu bateginean atzemandako akatsak zuzentzea, "Egiturazko antolamendua. Lurzoru urbanizaezinaren sailkapena, kalifikazio orokorra eta baldintzatzaile gainjarriak" atalari dagozkion NOR 1 serieko planoetan, eta Arabako Foru Aldundiko hirigintza organoari bidaltzea.

Bidalitako espedientean jasota dago Kuartangoko hiri antolamenduko plan orokorra idatzi duen taldearen txostena, azaltzen duena akats grafikoak antzeman direla "Egiturazko antolamendua. Lurzoru urbanizaezinaren sailkapena, kalifikazio orokorra eta baldintzatzaile gainjarriak" atalari dagozkion NOR 1 serieko planoetan. Habitaten geruza bikoiztuta dagoela da antzemandako akatsa; izan ere, indarrean dagoen erreferentzia sistemaren arabera kokatuko geruza bat dago (ETRS89), baina baita aurreko sistemaren arabera (ED50) kokatutako beste bat ere. Habitaten geruza bikoiztuta duten planoen euskarri digitala berrikusi ondoren, akatsa zuzendu da, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean jasotako kategorizazioa erreferentziatzen hartuta.

Kuartangoko hiri antolamenduko plan orokorraren dokumentazio teknikoari dagokionez, bidalitako espedientean "Egiturazko antolamendua. Lurzoru urbanizaezinaren sailkapena, kalifikazio orokorra eta baldintzatzaile gainjarriak" atalari dagozkion NOR 1 serieko planoak erantsi dira, dagokien formatuan, behin antzemandako akatsak zuzenduta.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Aplikatzekoa da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 109.2 artikuluan xedatutakoa; haren arabera: "Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizios edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak".

Aurkeztutako dokumentazioa kontuan hartuta, Kuartangoko Udalak bidalitako espediente administratibo eta teknikoan behar bezala justifikatu dira indarrean dagoen Kuartangoko hiri antolamendurako plan orokorraren testu bateginean antzemandako akatsak.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Onespena ematea Kuartangoko udalerriko hiri antolamenduko plan orokorraren testu bateginean atzemandako akatsak zuzentzeari, "Egiturazko antolamendua. Lurzoru urbanizaezinaren sailkapena, kalifikazio orokorra eta baldintzatzaille gainjarriak" atalari dagozkion NOR 1 serieko planoetan, bat etorritz udalbatzak 2024ko abenduaren 9ko ohiko bilkuran hartutako erabakiarekin.

Bigarrena.- Zuzenketa hori Arabako Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistroan aurkeztea.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.- Ebazpen hau Kuartangoko Udalari jakinaraztea.

Bosgarrena.- Administrazio bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu daiteke zuzenean EAEko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko martxoaren 12a

*Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua*  
**LAURA PÉREZ BORINAGA**

2025eko martxoaren 13an, 2025/4 erregistro zenbakiarekin, Arabako Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistroan inskribatu da Kuartangoko udalerriko hiri antolamendurako plan orokorraren testu bateginean ikusitako akatsen zuzenketa, hain zuzen, "Egiturazko antolamendua. Lurzoru urbanizaezinaren sailkapena, kalifikazio orokorra eta baldintza gainjarriak" atalari dagozkion NOR 1 serieko planoetan.